



MASTERS CAIXABANK 2021-EN ARAUDIA

1. TXAPELKETA SISTEMA

Masters CaixaBank 2021 txapelketak fase hauek izango ditu: Sailkapen Liga (fase erregularra eta play-off fasea), Finalurrekoak eta Finala.

1.1. SAILKAPEN LIGA

1.1.1. FASE ERREGULARRA

1.1.1.1. PARTE HARTZAILEAK

Fase honetan, 8 bikotek parte hartuko dute.

Araudi hau aplikatuz, pilotari "titularra" izango da *Masters CaixaBank 2021* aurkezteko ekitaldian bikote bateko kide gisa iragarritakoa. Esandakoaren arabera "titularra" ez den pilotaria "ordezkoa" izango da –ondorio guztietarako–, edozein dela ere fase batean edo gehiagotan jokaturako partida kopurua, edo partida horietan lortutako emaitza. Pilotari "ordezkatzaila" eta "ordezko" pilotaria gauza bera izango dira, Araudi honetan fase bakoitzerako aurreikusita dauden ordezkapen arauak aplikatzeko.

1.1.1.2. TXAPELKETA EGUNAK

Sailkapen ligako fase erregularrean, bikote guztiek behin jokatu dute elkarren aurka.

1.1.1.3. SAILKAPENA

Sailkapen ligako fase erregularrean, bikote guztiak sailkapen bakarrean agertuko dira, eta puntu bat emango zaie irabazitako partida bakoitzeko. Zazpi txapelketa egunen ondoren, sailkapen ligako fase erregularreko behin betiko sailkapena egingo da, bikoteek lortutako puntuak aintzat hartuta. Berdinketarik izanez gero, irizpide hauek erabiliko dira:

- I. Puntu berdinketa bi bikoteren artean bakarrik gertatzen bada:
 - a) Postu hobea lortuko du bi bikoteen arteko partida irabazi duenak.
 - b) Berdinduta jarraitzen badute, puntu hobea lortuko du fase horretako partida guztietan koefiziente (aldeko tantoak ken aurkakoak) onena lortu duen bikoteak.
 - c) Berdinduta jarraitzen badute, puntu hobea lortuko du puntuazio kaxkarrenarekin galdutako partidatan tanto gehien egin dituen bikoteak; eta berdinduta jarraituz gero, bigarren puntuazio kaxkarrenarekin galdutako partidatan tanto gehien egin dituenak, eta horrela hurrenez hurren.
- II. Berdinketa bi bikote baino gehiagoren artekoa bada, puntu hobea lortuko du, hurrenez hurren:
 - a) berdinduta dauden bikoteen arteko partidatan puntu gehien lortu duen bikoteak;



- b) berdinduta jarraitzen badute, berdinduta dauden bikoteen arteko partidetan koefiziente (aldeko tantoak ken aurkakoak) onena lortu duen bikoteak;
- c) berdinduta jarraitzen badute, fase horretako partida guztietan koefiziente (aldeko tantoak ken aurkakoak) onena lortu duen bikoteak;
- d) berdinduta jarraitzen badute, puntuazio kaxkarrenarekin galdutako partidatan tanto gehien egin dituen bikoteak; eta berdinduta jarraituz gero, bigarren puntuazio kaxkarrenarekin galdutako partidatan tanto gehien egin dituenak, eta horrela hurrenez hurren.

1.1.1.4. ORDEZKAPENAK

Pilotari batek ezin badu sailkapen ligako fase erregularreko partida bat edo gehiago jokatu, bere enpresak izendatuko duen ordezeko batek beteko du bere lekua.

Sailkapen ligako fase erregularrean pilotari baten ordeza aritu den pilotari bat ondoren beste baten edo batzuen ordezeko izan ahalko da, bai fase horretan, bai ondorengo faseetan.

Bikoteetako pilotari titullarrak ezingo dira beste bikote batzuetako ordezeko izan sailkapen ligako fase erregularrean.

Ordezko pilotari batek sailkapen ligako fase erregularrean jokatzeko badu, ez da titular bihurtuko partida kopuru jakin bat jokatzekoatik bikote bateko kide gisa edo garaipen kopuru jakin bat lortzekoatik bikote horretan.

Edonola ere, ordezeko pilotari bat beste ordezeko batek ordeztu ahal izango du.

1.1.2. PLAY OFF FASEA

1.2.1.1. PARTE HARTZAILEAK

Fase honetan, sailkapen ligako fase erregularrean 3., 4., 5. eta 6. lekuetan gelditu diren 4 bikoteek parte hartuko dute.

1.2.1.2. TXAPELKETA EGUNAK

Bikote bakoitzak partida bakarra jokatu du, era honetan:

- sailkapen ligako fase erregularreko 3.a & sailkapen ligako fase erregularreko 6.a
- sailkapen ligako fase erregularreko 4.a & sailkapen ligako fase erregularreko 5.a

1.2.1.3. ORDEZKAPENAK

Pilotari batek ezin badu play-off fasea jokatu, bere enpresak izendatuko duen ordezeko batek beteko du bere lekua. Play-off faseko ordezkapenei dagokienez, Araudi honen 1.1.1.4 atalean aurreikusitakoa aplikatuko da.



1.2. FINALAURREKOAK

1.2.1. PARTE HARTZAILEAK

Fase honetan, 4 bikote hauek parte hartuko dute:

- Saikapen ligako fase erregularrean 1. eta 2. postuak lortu dituzten bikoteek.
- Saikapen ligako play-off faseko partidetan garaipena lortu duten bikoteek.

1.2.2. NORGEHIAGOKAK

Partida bakarra jokatu dute, era honetan:

- saikapen ligako fase erregularreko 1. bikotea & play-off partidan garaile izan den eta saikapen ligako fase erregularrean okerrago sailkatuta geratu zen bikotea.
- saikapen ligako fase erregularreko 2. bikotea & play-off partidan garaile izan den eta saikapen ligako fase erregularrean hobeto sailkatuta geratu zen bikotea.

1.2.3. ORDEZKAPENAK

Pilotari batek ezin badu finalaurreko partida jokatu, bere enpresak izendatuko duen ordezkok beteko du bere lekua.

Saikapen ligan bikote bateko edo gehiagotako ordezeko izan den pilotari bat beste bikote bateko ordezeko izan daiteke finalaurrekoan. Finalaurrekoan pilotari baten ordezaritu den pilotari bat ondoren ere izan daiteke ordezekoa. Bikoteetako pilotari titularrak ezingo dira beste bikote batzuetako ordezeko izan finalaurreko fasean.

Edonola ere, ordezeko pilotari bat beste ordezeko batek ordeztu ahal izango du.

1.3. FINALA

1.3.1. PARTE HARTZAILEAK

Finalaurreko partidetak bi bikote garaileek jokatu dute finala.

1.3.2. DATA

Finala partida bakarrekoa izango da.

1.3.3. ORDEZKAPENAK

Pilotari batek ezin badu finala jokatu, ordezeko batek beteko du bere lekua, eta ez da atzerapenik onartuko. Finala jokatu ezin duen pilotariaren lekua beteko duen ordezeko pilotaria aukeratzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

- a) *Masters CaixaBank 2021*-en parte hartu duen pilotari titularra izango da, finala jokatu ezin duen pilotariaren enpresa berekoa.



- b) Finalurrekoetako sailkapenetik aterako da: finalerako sailkatu ez direnetatik posturik onena lortu duen bikotetik (3.a), eta horrela hurrenez hurren (4.a). Finalurrekoetako sailkapenean ez badago finala jokatu ezin duen pilotariaren enpresa bereko pilotari titularrik, edo daudenek ezin badute jokatu, sailkapen ligako play-off faseko emaitza hartuko da erreferentziazat, eta, azken aukera gisa, sailkapen ligako fase erregularreko sailkapena; kasu horietan, ordezkoa izango da finalurrekoetarako sailkatu ez direnetatik posturik onena lortu duena.
- c) Aurreko ataletako irizpideak aplikatu ondoren, enpresa bereko pilotari titular bakar batek ere ezin badu jokatu, finala jokatu ezin duen pilotariaren enpresak erabakiko duen ordezeko pilotariari egokituko zaio plaza.

2. ATSEDENALDIAK

Masters CaixaBank 2021-eko partidetak atsedenaldiei buruzko alderdi guztietan, EPELren Atsedenaldien Araudian aurreikusitakoa beteko da.

3. DOPINAREN AURKAKO KONTROLAK

Masters CaixaBank 2021-en dopinaren aurkako kontrolak egingo dira, eta EPELen Dopinaren Aurkako Araudian aurreikusitakoak arautuko ditu kontrol horiek.

4. PILOTARI BAT ORDEZTEA

Bere enpresaren ezagutza eta uste zintzoaren arabera pilotari batek ez badu eska dakioken maila ematen partidetan, enpresa bereko beste pilotari bat jarri ahal izango da bere ordezkari. Araudiaren atal honetan oinarrituta pilotari bat beste baten ordezkari sartzeko, "ordezkari" dagokienez fase bakoitzerako aurreikusita dagoena aplikatuko da.

5. GATAZKAK EBAZTEA ETA ARAUDIA INTERPRETATZEA

Araudi honen edukiaren inguruan gatazkarik sortuko balitz, dela interpretazio arazoengatik, dela ez duelako inongo xedapenetan jasotzen planteatutako egoera jakin bat, EPELeko Txapelketako Epailen Bakarraren ardura izango da gatazka hori ebatzea, eta haren erabakia apelaezina izango da.

6. AZKEN XEDAPENA

Behin txapelketa hasita, EPELek, araudi honetan aurreikusitakoa garatzeko eta aldatzeko xedapenak agindu ahal izango ditu, dagokion akordio arrazoituaren bitartez; bereziki, aparteko akordio bat justifikatzen duten bat-bateko egoeretan.



7. RANKINGA

EPEL Rankingaren ondorioetarako, **Masters CaixaBank 2021** txapelketan puntuazio hauek emango dira:

1. kategoriako bikoteak	
Txapelduna	300
Txapeldunordea	180
3. sailkatua	90
4. sailkatua	60
Sailkapen liga	35 (*)

(*) Metagarriak